



## **Arartekoaren 2/2011 Gomendio orokorra, abuztuaren 8koa.**

**Beste gizarte prestazio batzuen titularrak diren pertsonen langabeziatikiko subsidioa etetearen ondorioz jazotako egoerei erantzun bat emateko beharra.**

### **Sarrera eta aurrekariak**

1. Azken hilabeteetan erakunde honetan hainbat kexa jaso dira gai horren inguruan, hau da, Lan eta Immigrazio Ministerioaren menpe dagoen organismoak, Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak hain zuzen ere, langabeziatikiko subsidioa jasotzeko eskubidea zenbait pertsonari bertan behera utzi izanagatik. Halaber, kasu askotan, eteteak atzeraeraginezko ondorioak ditu, beraz, zenbait zenbateko modu bidegabean jaso zirela adierazi dute eta onuradunei itzultzeko eskatu diete.

Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren (hemendik aurrera EEZP) ebazpenak, etete hori zehaztu duenak, azaldu du arrazoa izan ohi dela subsidioaren titularraren errenta hilean lanbideen arteko gutxieneko soldata baino % 75 altuagoa dela. Horretarako, ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuak onartutako Gizarte Segurantzaren Testu Bateginaren 215. artikulua aipatzen da.

Mahaigaineratutako kasuetan eragindako pertsonak, aldi berean, autonomia erkidego honen berezko beste prestazio ekonomiko baten edo batzuen onuradunak dira. Prestazioak beharrak dituzten familia unitateei edo bizikidetzak unitateei laguntzera zuzenduta daude. Prestazio horietako bat diru-sarrerak bermatzeko errenta da, batzuetan etxebizitzarako prestazio osagarriaren bitartez osatzen dena. EEZPk laguntza horien guztien zenbateko osoa langabeziatikiko subsidioaren titularraren berezko errentatzat jotzen du eta, hortaz, pertsonak aipatutako subsidioa jasotzeko eskubidea eduki ahal izateko ezarritako baldintzen muga gainditzen duela uste du. Horrela, EEZPk laguntza bertan behera utzi eta jasotakoa okerreko kobrantzat jotzen du. Horrek esan nahi du langabeziatikiko subsidio gisa jasotako zenbatekoak itzultzeko beharra dagoela, aldez aurretik esan bezala.

2. Langabeziatikiko subsidioa EEZPk kudeatzen duen estatuko laguntza-prestazio bat da. Beraz, otsailaren 27ko 3/1985 Legearen bitartez –erakunde hau sortu eta arautzeko- Arartekoari esleitutako jarduera eremutik kanpo dagoen administrazioa da.



Langabeziagatiko subsidioaren titularrak diren pertsonak gizarte prestazio autonomikoak jasotzeko dagokionez, EEZPk egin duen arauaren interpretazioak bidegabekeria materialeko egoera larria eragin du. Prestazio ekonomiko autonomiko horien jatorriarekin bat datorren interpretazioa egitea beharrezkoa litzateke edo, hala badagokio, inguruabar horiek aintzat hartzen dituen araudiaren egokitzapen bat. Dena den, hori gertatu bitartean, interesgarria litzateke aurretik aipatutako etetea dela-eta eragindako pertsonak dagokion administrazioaren aurrean defentsa egokia izateko legezko eskubidea behar bezala gauzatzea, zuzenbideari dagokionez ondo oinarrituta dauden alegazioak aurkeztuz eta administrazio horri pertsona horien aldeko argudio baliodunak emanaz, aintzat hartu ditzaten eta ondorio positiboak eragin ditzaten. Modu berean, interesgarria litzateke zeregin horretan laguntza behar duten pertsonak laguntza jasotzea.

Hori guztia adierazi dugu honako hau aintzat hartuta

## Gogoetak

1. Langabeziagatiko subsidioa ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretuaren bitartez onartutako Gizarte Segurantzako Lege Orokorren Testu Bateginean (hemendik aurrera GSLO) xedatu da, zehazki III. tituluan: Langabeziagatiko babesak (203. artikulua eta hurrengoak). Subsidioak laguntza izaera dauka eta langabezia eta arau horretan berariaz jasotzen diren egoeretako batean dauden langileen babesak bermatzen du

Bermatutako babesak honako hau barne hartzen du: prestazio ekonomiko -langabeziagatiko subsidio-, xedatutako kasuetan erretiratzeko Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioen ordainketa eta osasun laguntza eskuratzeko eskubidea, bai eta, hala badagokio, familia prestazioak ere.

Langabeziagatiko subsidioa jasotzeko eskubidea izateko, oinarrizko baldintzetako bat da **errentarik ez edukitzea**. Horri dagokionez, GSLOren 215.1.1. artikulua xedatzen du aipatutako subsidioaren onuradunak honako hauek izango direla: *“Hilean lanbideen arteko gutxieneko soldataren 100eko 75 baino altuagoak diren errentak, jatorria edozein dela ere, ez dituzten langabeak (bi ordainsari estren zati proportzionala alde batera utzita), (...)”* eta zehaztu diren egoera jakin batzuetan dauden langabeak.

Egoera horiek desberdinak izan daitezke. Laburbilduz, honako betekizun hauek aipatzen dira: A) langabeziako prestazioa agortu izana eta familia erantzukizunak edukitzea; erantzukizunik ez edukitzea baina prestazioa 45 urte bete eta gero agortu izana; itzuli den joandako langile espainola izatea, zenbait egoeratan; sei hilabete baino gehiagotan askatasuna kendu izana eta langabeziako prestazioa jasotzeko eskubiderik ez edukitzea; ezintasun egoera baten berrazterketa eta gero gaitzat jo izana edo ezintasun partziala aitortu izana. B) lanbide arteko gutxieneko soldataren % 75 baino altuagoa den



errentarik ez daukatenek, adierazi den moduan, eta langabeziako prestazioa eskuratzeko eskubiderik ez dutenek ez dutelako bete kotizatu beharreko denboraldia; betiere, gutxienez hiru hilabetez kotizatu badute familia erantzukizunak baldin badituzte eta, eduki ezean, gutxienez sei hilabete kotizatu badute. C) 52 urte baino gehiago dituztenak, nahiz eta familia erantzukizunik ez eduki, betiere aipatutako egoeraren batean baldin badaude, euren lan bizitzan langabeziagatik gutxienez sei urte kotizatu badute eta Gizarte Segurantzako erretiroko kotizaziopeko pentsioa eskuratzeko baldintza guztiak betetzen badituzte, adina alde batera utzita.

**Familia erantzukizunak** GSLOren 215.2. artikuluan definitu dira: *“Artikulu honetan xedatutakoari jarraiki, honako hauek familia erantzukizuntzat joko dira: ezkontidea, hogeita sei urte baino gutxiagoko seme-alabak edo nagusiagoak diren baina ezintasunen bat duten edo harreran jasotako seme-alabak bere gain edukitzea, familia unitatearen errenta, eskatzailea barne, unitatea osatzen duten kideen artean zatikatua, lanbide arteko gutxieneko soldataren 100eko 75a gainditzen ez duenean (bi ordainsari estres zati proportzionala aintzat hartu gabe).* Ulertzen da aipatutako muga gainditzen duten errentak dituzten pertsonak ez daudela inoren kargura.

2011. urtean, lanbide arteko gutxieneko soldata hauxe da: 641,4 euro hilean, ordainsari estrak kontuan hartu gabe (abenduarien 30eko 1794/2010 Errege Dekretua), beraz, % 75eko muga hilean 481,05 euro dira.

Bestalde, errentarik ez edukitzeari buruzko baldintza zehazte aldera, GSLOk ez ditu **errentatzat edo diru-sarrera konputagarritzat** hartuko Gizarte Segurantzaren esleipenak seme-alabak bere gain edukitzegatik (215.3.2. artikulua). Esleipen horiek Gizarte Segurantzaren familia prestazioen barruan daude, babesteko ekintzaren barruan (IV. kapitulua). Neurri hori garrantzitsua da aintzat hartzen bada esleipen horren helburua. Horri buruz aurrerago hitz egingo dugu.

2. Aurrekoarekin bat eginez, familia erantzukizunak daudenean, errentarik ez edukitzeari buruzko baldintza betetzen den baloratzeko familia unitatearen errentak unitatea osatzen duten kide guztien artean zatikatu behar dira, eskatzailea edo langabeziagatik subsidioaren titularra barne. Hala ere, mahaigaineratutako kasuetan, familia unitate osoari zuzendutako diru-sarrerak subsidioaren titularraren berezkozat jo dira. Arauaren interpretazio hori oso murriztailea eta kaltegarria da eragindako pertsonarentzat. Oinarriko beharrei erantzuteko prestazio baterako eskubideari buruzko arau baten –hala nola, langabeziagatik subsidioa- interpretazio murriztaileak oinarri oso sendoa izan behar du. Kasu honetan, EEZPK halako interpretazioa egin du, gure ustez, justifikaziorik gabe.

**Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren** lan-arloko Salak ere hala ulertu du orain dela gutxiko 2011ko maiatzaren 4ko epai batean. Bertan, auzitegiak GSLOren 215.2. artikulua ezartzen duenari jarraiki egindako

kalkulua babesten du (diru-sarrerak familia unitatea osatzen duten kide guztien artean zatikatuz) eta herritar batek aurkeztu duen errekurtsioa balioetsi du. Herritar horri EEZPk langabeziagatiko subsidioa jasotzeko eskubidea eten egin zion familiaren errenta eta asistentzia-maila duten beste bi prestazio ekonomiko soilik berari egotzi zizkiolako. Hauek ziren prestazioak: bat autonomikoa eta beste bat estatu-mailakoa <sup>1</sup>. Epaiak interesdunak aurkeztutako errekurtsioa balioetsi du eta langabeziagatiko subsidioa jasotzeko eskubidea aitortu du *“diru-sarrera garbien baieztapenaren arabera eta familia unitatea aintzat hartuta”*.

Epai garrantzitsu horretan honako hau nabarmendu daiteke daukan interesa dela-eta: bigarren zuzenbideko oinarria. Bertan adierazten da langabeziagatiko subsidioaren helburua funtsezko bizi iraupena bermatzea dela eta, haren ustez, diru-sarreraren eskuragarritasun erreala irizpidea aplikatu behar da. Irizpide hori Auzitegi Gorenak ezarri du aurrerago azalduko den moduan. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaiak adierazi du, errenten zenbaketa, langabeziagatiko subsidioari dagokionez, honela egin behar dela *“... estableciendo la existencia de un parámetro de dependencia de dicha unidad familiar (...) sumando todos los ingresos y dividiéndolos por el número de integrantes con el resultado de los ingresos por persona, que deben ser inferiores al 75% del salario mínimo interprofesional”* (Auzitegi Gorenaren 2000. urteko maiatzaren 30eko epai baten aipamena). Horrez gain, Euskal Autonomia Erkidegoko epaiak honako hau ere adierazten du *“se trata de impedir que la carga familiar que soporta la titularidad jurídica de esa percepción complementaria ... le suponga un impedimento en la concesión de su subsidio de desempleo cuando afronta dichas cargas familiares, en un cómputo no individual sino globalizado o plural, que atiende a los convivientes y a la unidad familiar..”* eta honako hau saihestearen alde agertzen da *“... la injusticia de proceder a la suspensión del subsidio de desempleo por detentar la titularidad de una prestación complementaria y asistencial que tiene por finalidad y disponibilidad a la unidad familiar de los convivientes...”*. Epaiak haxe gaineratzen du *“... la obligación del titular de dicha renta (diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez) es aplicar tal prestación a la cobertura de las necesidades de la unidad convivencial familiar, no su propia exigencia como renta, peculio o patrimonio individualizado, que por ende no puede serle atribuido con exclusividad”*. Hori guztia dela eta, auzitegiak helegileari arrazoia eman zion, adierazi den moduan.

Aurrekoaz gain, eta langabeziagatiko subsidioa baldintzatuta dagoelako (denboraldi jakin batean zehar lan egin eta kotizatu izanagatik, besteak beste)

---

<sup>1</sup> Alde batetik Gizarteratzeko eta Gizarte Babeserako Oinarrizko Errenta, diru-sarrerak bermatzeko errentaren modalitate bat dena. Abenduaren 23ko 18/2008 Legearen ondoriozko EAEko prestazioa.

Bestetik, familia inguruko zainketarako prestazio ekonomikoa, Norberaren Autonomia Sustatzeari eta Menpekotasun egoeran dauden pertsonen Arreta emateari buruzko abenduaren 14ko 39/2009 Legearen ondoriozkoa. Lege horretako prestazioen zenbatekoa ez da zenbagarria diru-sarrerak bermatzeko errentari dagokionez (maiatzaren 27ko 147/2010 Dekretuaren 21.1.b artikulua).



**Auzitegi Gorenak** kontribuzio-mailaren osagarritzat jotzen du, soilik asistentziala dena gaingiduz (doktrinak "asistentzia inpropioa" deitzen dio horri). Beste modu batean esanda, "asistentzia osagarri bat daukan prestazio" izaera ematen dio. Auzitegi Gorenak, lan-arloko salaren 2009ko urriaren 28ko epaian (zuzenbideko bosgarren oinarrian) honako hau adierazi du aurrekoaren harira: "... *todo ello justifica –incluso– que la interpretación del requisito de "carencia de rentas" hubiera de orientarse –de existir dudas– más a la simple "situación de necesidad" (a la que se refiere el art. 41 CE como objetivo a satisfacer por los poderes públicos) que a la "situación de pobreza"; en definitiva, dar satisfacción al principio de "suficiencia" que impera en materia de protección de desempleo y que comporta un nivel de ingresos que permita una vida adecuada y digna*". Hori dela eta, Auzitegi Gorenak eskuragarritasunaren irizpidearen alde egiten du (erreal eta ez teorikoa), subsidioa eskuratzeko aukera ematen duen diru-sarrerarik ez edukitzea zehazteko kalkulua egite aldera (zuzenbideko 7.2. oinarria) (lehen aipatutako Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren epaian aipatutako irizpidea).

3. Erakunde honetara jo duten pertsonak, langabeziagatiko subsidioaren etetea eta modu okerrean jasotako zenbatekoak itzultzeko errekerimendua dela-eta eragindako pertsonak dira eta guztiak dira prestazio ekonomiko baten edo bat baino gehiagoren onuradunak. Prestazioak autonomia erkidego honetako berezko prestazioak dira, abenduaren 23ko 18/2008 Legearen ondoriozkoak, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko. Hona hemen prestazioak: diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria. Araudi zehatza daukate, aipatutako legearen garapenean onartutakoa<sup>2</sup>.
  - Diru-sarrerak bermatzeko errentaren helburua familiaren oinarrizko beharrak asebetetzea da, bai eta gizarteratze edo laneratze prozesu baten ondoriozko gastuei aurre egitea ere. Familiak bizirik irauteko prestazio bat da. Helburu horien ondoriozko gastuei aurre egiteko diru-sarrera nahikorik ez duen bizikidetzaren unitate bat osatzen duten pertsonen zuzenduta dago. Eskuragarri dituzten diru-sarrerak –kasu honetan, langabeziagatiko subsidioa- autonomia erkidego horrek herritar guztiei bermatzen dien zenbatekora heldu arte osatu dira. Zenbateko horrek bermatu behar du herritarrek pertsona baten edo familia baten behar funtsezkoenak modu duinean asebetetzeko nahikoa daukatela. Zenbatekoa aldatzen da unitatea osatzen duen kide kopuruaren arabera.
  - Etxebizitzarako prestazio osagarria, onartzen denean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren osagarri bat da eta bizikidetzaren unitatearen etxebizitzaren edo ohiko bizitokiaren alokairuko gastuei aurre egitera zuzenduta dago.

---

<sup>2</sup> Diru-sarrerak bermatzeko errentari buruzko maiatzaren 25eko 147/2010 Dekretua. Etxebizitzarako prestazio osagarriaren gaineko urtarrilaren 12ko 2/2010 Dekretua.



Prestazio horiek xedea eta laguntza izaera dute bizikidetzaren unitatea edo familia unitatea osatzen duten kide guztiei dagokienez, haietako zein den titularra alde batera utzita. Alderdi hori azpimarratzea garrantzitsua da; izan ere, jaso ditugun kasuetan langabeziagatik subsidioaren titularra, aldi berean, prestazio autonomiko horietako baten edo bien titularra zen ere. EEZPk diru-sarrerak soilik titularrari egotzi dizkio, haren familia egoera aintzat hartu gabe, eta ezarritako errenten muga gainditzen duela ondorioztatu du. Ondorioz, subsidioa jasotzeko eskubidea eten egin diote.

Aurreko atalean adierazi den moduan, gure ustez interpretazio hori ez da zuzena eta, gainera, prestazioen (estatu mailakoak zein autonomikoak) titularra nor den kontuan hartuta, tratu desberdina agerian uzten duten egoerak eragin ditzake. Hala nola, gerta daiteke kide kopuru bera duten bi familia egoera ekonomiko berdinean egotea eta biek jasotzea subsidioa eta prestazio autonomiko bat. Desberdintasuna da kasu batean subsidioaren eta prestazio autonomikoaren titularra pertsona bera dela; horrek esan nahi du prestazio autonomikoa aintzat hartuko dutela langabeziagatik subsidioa jasotzeko bete behar diren baldintzak aztertzerakoan eta, ondorioz, prestazioa kendu egingo diotela ezarritako diru-sarreraren muga gainditzeagatik. Estatu mailako prestazio eta prestazio autonomikoaren titularra desberdina den familien kasuetan, berriz, ez da hori gertatuko. Hortaz, inkongruentzia bat izateaz gain, subsidioa kentzen zaion familiaren aurkako tratu diskriminatzailea ere bada.

4. Auzitegiek 2. puntuan aipatutako "diru-sarreraren eskuragarritasun errealearen" printzipioa eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren familia-helburua defendatu dute. Ikuspuntu horretatik, eragindako familiek jasotzen dituzten prestazio autonomikoak aztertu ahal dira.

**Auzitegi Gorenak** xedea duten bi prestazio –ikasteko beka bat eta ohiko etxebizitza erosteko diru-laguntza bat besteak beste- langabeziagatik subsidioa jasotzen duen langilearen errentatzat jo behar diren edo ez aztertu du. Auzitegiak ondorioztatu du laguntza horiek ez direla errentatzat jo behar subsidioa jasotzeko baldintzak aztertzerako orduan. Ondoren, erabilitako argudioak jaso dira, aipatutako laguntza autonomikoen kasuan guztiz aplikagarriak direla uste baitugu.

Auzitegi Gorenaren lan-arloko Salak, 2010eko azaroaren 16ko epaian (RJ\2010\9158) bekari eta horren izaera juridikoari buruzko alderdia aztertu zuen eta adierazi zuen beka honako helburua duen prestazio dela *"compensar a la familia de los gastos y desventajas económicos que lleva consigo la dedicación al estudio"* eta horien esleipena honen arabera dela *"depende del nivel de renta familiar o patrimonio, por encima de los cuales desaparece toda posibilidad de obtención de beca o ayuda alguna para el estudio"*, beraz, *"estas becas no pueden considerarse como rentas sino compensación de los gastos y desventajas económicas que implica para la familia la dedicación al estudio de algún miembro"* (zuzenbideko 3. oinarria).



Bai diru-sarrerak bermatzeko errentak, bai etxebizitzarako prestazio osagarriak familia diru-sarrerarik eza konpentsatzea dute helburu; horien emakida familiaren errentak zenbait muga ez gainditzea baldintzatzen du eta diru hori ezin da erabili adierazitakoa ez den beste helburu batentzat.

Halaber, Auzitegi Gorenaren lan-arloko Salak, 2002ko apirilaren 19ko epaian, etxebizitza eskuratzeko diru-laguntza baten izaera azertu zuen subsidioarekin bateragarria den egiaztatze eta ondorioztatu zuen ezin zela errentatzat jo langabeziagatiko subsidioa jasotzeko diru-sarrera maila zehazterako orduan eta zera gaineratu zuen *“Una interpretación diferente conduciría a conclusiones ilógicas e injustas, pues se primaría a quien dispone en propiedad de una vivienda sobre el que carece de ella y obtiene una subvención para conseguirla, subvención que ha de invertirse necesariamente en el inmueble para su ocupación como vivienda habitual y que por ello debe seguir el mismo régimen que ésta a los efectos que el propio precepto establece: su exclusión como rendimiento computable para entender cumplido el requisito de la carencia de rentas”*.

Gure ustez, epaileen erabaki hori erreferentziatzen erabili dezakegu eztabaidatzen ari garen kontua aztertze aldera. Bistakoa dirudi, Auzitegi Gorenak ohiko etxebizitza erosteko diru-laguntza errenten zenbaketatik at uzten badu, familiaren ohiko bizitokia den etxebizitzaren alokairua ordaintzeko laguntza arrazoi gehiagorekin kanpoan utzi behar dela. Beraz, laguntza hori errentatzat hartzeak, egiten ari den moduan, laguntza hori behar ez duen pertsona (etxebizitza jabetzan daukalako eta, beharbada, dagoeneko ordainduta dagoelako) baino egoera okerragoan dagoen pertsona zigortzea barne hartzen du.

Modu berean, diru-sarrerak bermatzeko errentaren izaera aintzat hartuta, laguntza hori errenten zenbaketatik kanpo utzi behar dela uste dugu. Aurretik esan dugun moduan, gogoratu dezagun seme-alaba bat bere gain edukitzeagatik ematen den esleipena errenten zenbaketatik at uzten dela (GSLOren 215.3.2. artikulua). Neurri horrek zentzuzkoa ematen du, esleipen ekonomiko horren helburua zein den aintzat hartuta: seme edo alaba horrek bizirik irautea, bai adingabekoa delako, bai, heldua bada, lana eskuratzeko zailtzen duen ezintasun garrantzitsuren bat duelako (% 65 gutxienez). Helburu hori diru-sarrerak bermatzeko errentaren baliokidea da, hau da, familiak bizirik iraun dezan funtsezko beharrei erantzutea. Bi prestazioek antzerako izaera dute eta ondoren aipatutako alderdiak partekatzen dituzte: ezin zaie atxikipenik, lagapenik, konpentsaziorik, deskonturik edo bahikuntzarik aplikatu, salbuespeneko egoeratan ez bada behintzat eta, betiere, legeekin bat eginez.

5. Aurrekoari lotuta eta prestazio autonomikoak diru-sarreratzat jotzeari dagokionez, honako hau adierazi nahi da:



Onartu da autonomia erkidegoek berezko laguntzak ezarri ahal dituztela, estatu-mailakoak alde batera utzita. Hala ezarri baitu **Auzitegi Konstituzionalak**, abenduaren 11ko 239/2002 Epaian (RTC\2002\239). Epaia hori eman zen, Andaluziako Juntak erkidego horretako herritarrentzako kotizazio gabeko pentsioak osatzeko zenbait laguntza ekonomiko onartu ostean, Espainiako gobernuak errekurtsio bat aurkeztu zuelako eta, epaia horren bitartez, Auzitegi Gorenak ondorioztatu zuen laguntza horiek ez dutela konstituzioarekiko leialtasunaren printzipioa urratzen.

Auzitegi Konstituzionalak epaia horretan aipatzen du, alde batetik, Espainiako Konstituzioaren 41. artikulua, botere publikoek Gizarte Segurantzaren araubide publikoa mantentzeko beharri buruzkoa *"que garantice la asistencia y prestaciones sociales suficientes ante situaciones de necesidad, especialmente en caso de desempleo"* eta zera gaineratzen du *"la asistencia y prestaciones complementarias serán libres"*. Horrek esan nahi du, gizarte laguntza ez dagoela soilik Gizarte Segurantzari lotuta, sistema horren "barruko" laguntza gisa, sistema horretatik at dagoen "kanpo" laguntza bat ere egon daiteke, arlo horretan eskumena duten autonomia erkidegoen berezkoa eta eskusiboa dena. Zentzu horretan, epaia uste du "gizarteratzeko gutxieneko soldadak" izenekoak Gizarte Segurantzaren berezkoak diren prestazioekin guztiz bateragarriak direla (eta berriazko erreferentzia egiten dio Euskal Autonomia Erkidegoko maiatzaren 22ko 18/1998 Legeari, gizarte bazterkeriaren aurkakoari, gaur egun indarrean dagoen aipatutako prestazio autonomikoak ezartzen dituen abenduaren 23ko 18/2008 Legeak ordezkatu duena).

Epaia adierazi du Gizarte Segurantzaren sistemak ematen duen babesa osatzea, nahikoa ez den kasuetan, zuzenbideko gizarte estatuaren funtsezko zati bat dela (Espainiako Konstituzioaren 1. artikulua), betiere, aipatutako sistema eta haren araubide ekonomikoa asaldatzen ez badira (7. oinarri juridikoa). Andaluziako laguntzak testuinguru horren barruan sartu ditu eta, epaiaren ustez, Andaluziako Juntak, gizarte laguntzaren arloan duen eskumen eskusiboarekin eta bere finantza autonomiarekin bat eginez, funtsak kotizazio gabeko pentsioak jasotzen dituzten pertsonen egoera hobetzeko erabili ahal ditu.

Langabeziagatiko subsidioak zein kotizazio gabeko pentsioak estatuaren laguntza prestazioak dira, arauzko xedapen beraren bitartez arautu direnak – ekainaren 20ko 1/1994 Legegintzako Errege Dekretua- eta ekintza babeslearen barruan sartuta daudenak, beraz, bien jatorria berdintsua da bien helburua baita behar egoera bati arreta ematea. Hori dela eta, Auzitegi Konstituzionalak epaia horretan oinarri dituen funtsak guztiz aplikagarriak dira langabeziagatiko subsidioaren kasuan, une honetan esku artean daukaguna hain zuzen.

Ondorioz eta aurrekoa langabeziagatiko subsidioen kasu zehatzera aplikatuz, Euskal Autonomia Erkidegoak, haren funts propioekin eta estatukoak arriskuan jarri gabe, erkidego horretan bizi diren herritarren langabeziagatiko subsidioa





osatu dezake eta horrek ez luke inolako ondorio txarrik eduki behar titularrari dagokionez, ezta subsidioari dagokionez ere.

Azken finean, estatuko administrazio orokorrak –Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoa administrazio horri lotuta dago- inguruabar horiek aintzat hartu beharko lituzke eta erreklamatzaileri beste administrazio batek (Euskal Autonomia Erkidegoa besteak beste), gizarte laguntzaren arloan duen eskumenari eta haren finantza autonomiari jarraiki, beharra dela-eta familia unitateari ematen dizkion laguntzak ez zenbatu.

6. Horrez gain, azpimarratu beharra dago langabeziagatiko subsidioaren eteteak ondorio ekonomikoak dituela Euskal Autonomia Erkidegoan, bai orainaldian, bai etorkizunean. Izan ere, etete horrek oso baliabide gutxi dituzten pertsona eta familiei eragiten die. Hori dela eta, euskal aldundiek etete horrek familiarentzat eragiten duen gabezia bete egiten dute diru-sarrerak bermatzeko errentaren zenbatekoa handituz. Beraz, EAEk estatuko administrazioarenak diren zenbatekoen gastua bere gain hartzen du. Horrek esan nahi du, erkidego honek finantza arloan dagokiona baino ahalegin handiagoa egin behar duela, EEZPk ordaintzen ez dituen subsidioak ordezkatzeko. Horrez gain, etetearen ondorioz eragindako pertsonen zenbateko hori diru-sarrerak bermatzeko errentaren bitartez jaso arren, hartutako neurriek euren eskubideetako batzuei modu larrian eragiten diete.

Horrela, dagoeneko aipatu dugun moduan, etetearen ondorioz eragindako pertsonen, langabeziagatiko subsidioa ez jasotzeaz gain, une horretara arte jasotako zenbatekoak itzuli behar dituzte, modu bidegabean jasotako diru-sarreratzat jotzen baitira. Kasu askotan, itzuli beharreko zenbatekoak oso zenbateko garrantzitsuak dira. Ezin dugu ahaztu pertsona horiek langabezian daudela, urritasun ekonomiko larria pairatzen dutela eta, beraz, modu bidegabean jasotako zenbatekoak itzultzeko beharrak oso eragin negatiboa daukala euren egoera ekonomikoan.

Bestalde, langabeziagatiko subsidioa eteteak, beste zenbait kontuez gain, erretiratzeko Gizarte Segurantzari egin beharreko kotizazioen etetea eragiten du. Horrek modu negatiboan eragiten die pertsona horiei baina, batez ere, 50 urte baino gehiago dituzten pertsonen. Izan ere, erretiratze pentsioa kalkulatzeko orduan, adin horretatik 65 urtera arte egindako kotizazioak aintzat hartzen dira (hamabost urte). Horrez gain, kontuan hartu behar ditugu atera berri den abuztuaren 1eko 27/2011 Legeak –Gizarte Segurantzaren sistema eguneratzeko, egokitze eta berritatzekoak– (abuztuaren 2ko Estatuko Aldizkari Ofiziala) GSLOn egin dituen aldaketak. Erretiro pentsioari dagokionez, lege horrek, 3. artikuluan, azken 25 urteetara zabaldu du (300 hilabete) pentsio horren zenbatekoa zehazteko kontuan hartu behar den aldia. Horrela, handiagoa izango da subsidioaren etete desegokiaren ondoriozko kotizazio faltak eragindako pertsonen kopurua. Kasu horietan, denboraldi horretan zehar kotizaziorik ez edukitzeak erretiro-pentsioaren zenbatekoa





murriztea eragingo luke eta, zenbait kasutan, pentsio hori EAEk osatu beharko du, diru-sarrerak bermatzeko errentaren bitartez.

7. Gure antolamendu juridikoak herritarrei babes judizial eragingarria izateko eskubidea aitortzen die, bai administrazio bidean, bai epai-bidean. Eragindako pertsonak eskubide hori modu egokian gauzatu dezaten oso garrantzitsua da, euren alegazioak administrazio bidean behar bezala oinarrituz, are gehiago ondoren epai-bidera jotzen badute, argudioak alde aurretik administrazioaren aurrean mahaigaineratu baitira. Hala eta guztiz ere, pertsona gehienek, euren egoera dela-eta, laguntza behar dute hori aurrera eramateko.

Gizarte Zerbitzuen Legeak zerbitzu horiei (udalekoak zein aldundikoak) egotzi die herritarrei informazioa eta orientazioa emateko funtzioa (22. eta 27. artikulua eta hurrengoak), bai eta gizarteratzeko beharrei erantzuteko eta bazterkeria arriskua saihesteko betebeharra ere. Modu berean, abenduaren 23ko 18/2008 Legeak gizarte zerbitzuen gaia jorratzen du arrisku egoerak edo gizarte bazterkeria egoerak antzematea eta arreta eskaintzea euren lanaren barruan sartuz (88. artikulua).

Gizarte zerbitzuak herritarretik gertuen dagoen unitatea dela eta horrek arazoak antzematerakoan garrantzi berezia ematen diola aintzat hartuta, oso erabilgarriak izan daitezkeen elementuak dira aipatutako aholkularitza eta laguntza lana burutzeko, esku artean ditugun gaiei dagokienez herritarren babes egokia lortze aldera. Azken finean, gizarte errealitateari dagokionez, jakinaren gainean egotean datza eta pertsona horiek gure antolamendu juridikoak herritar guztiei aitortzen dizkien eskubideak gauzaten dituztela bermatzeko bideak abian jartzean. Zentzu horretan, uste dugu udaleko gizarte zerbitzuak, diru-sarrerak bermatzeko errenta ematen duten foru administrazioen laguntza tekniko eta juridikoarekin batera, oso erabilgarriak izan daitezkeela eta, horretarako, beste gauza batzuen artean, aurreko gogoetak erabili daitezke. Laguntza horri esker, eragindako pertsonak leku hobean egongo liriateke EEZPren aurrean eta euren alegazioak balioesteko aukera gehiago edukiko lituzkete.

## Ondorioa

Euskal Autonomia Erkidegoak, gizarte arretaren arloan duen eskumen eksklusiboa oinarritzat hartuta, zenbait kasutan, langabeziagatiko subsidioa jasotzeko eskubidea duten pertsonen laguntza osatzen du beste gizarte prestazio autonomikoen bidez, hala nola, diru-sarrerak bermatzeko errenta eta, hala badagokio, etxebizitzarako prestazio osagarria. Subsidio hori jasotze aldera, errentarik ez edukitzearen betekizuna zehazterako orduan, EEZPk subsidioa osatzen duten prestazio ekonomiko autonomikoak errentatzat eta zenbagarriak diren diru-sarreratzat jotzen ditu, eta horien titularrari bakarrik esleitzen dizkio.





Interpretazio horrek pertsona horien eskubideak urratzen ditu argi eta garbi, are gehiago, arauen izaerarekin eta epaien zenbait erabakirekin bat datozen interpretazioak posible direnean. Horrela, hasteko, prestazio autonomiko horien diru-sarrerak bakarrik subsidioaren titularrari egozten dizkio, familia osatzen duen kide kopurua kontuan hartu gabe. Horrez gain, jurisprudentziak aitortzen duen "diru-sarreraren eskuragarritasun errealararen" printzipioa eta diru-sarrerak bermatzeko errentaren familia helburua alde batera uzten ditu. Hala, ez du aintzat hartzen diru-sarrerak bermatzeko errentaren helburua familiaren funtsezko beharrak asebetetzea dela eta prestazio horien izaera juridikoa bere gain seme edo alaba bat izateagatik esleipenen izaera bera dela. GSLOren arabera, azken horiek errenten zenbaketatik at daude.

Estatuko administrazioak horren murriztailea ez den interpretazioa egingo balu, aipatutako irizpideekin bat eginez, sortutako egoera neurri handi batean konpondu ahalko litzateke.

Interpretazio hori gaur egungo araudiarekin posible ez dela ulertzekotan, arauketa hori egokitu beharko litzateke, autonomia estatuaren errealtatearekin bat egiten duen idazketaren bidez eta soilik Gizarte Segurantzaren estaldurari lotuta ez dagoen gizarte laguntza sistema baten bidez. Modu horretan, bidegabekeria materialeko egoera larria konponduko litzateke.

Aurreko guztia ikusita, erakunde honek honako gomendio hau egiten du:

### **GOMENDIO OROKORRA:**

1. Eusko Jaurlaritzak Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoaren aurrean gestioak hasi beharko lituzke organismo horrek Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrak egiten duen interpretazioa alda dezan proposatzeko. Izan ere, haren iritziz, autonomia erkidegoetako eduki ekonomikoko gizarte prestazioak (diru-sarrerak bermatzeko errenta eta etxebizitzarako prestazio osagarria) zenbatu daitezke diru-sarrerak ez edukitzearen baldintza zehazteko, eta baldintza hori langabeziagatiko subsidioa emateko eska daiteke, bidegabekeria materialeko egoera larriak eragiten ari baita.
2. Estatuko administrazioak ezarri beharreko legeriaz egiten ari den interpretazio juridikoari eusten badio, komenigarritzat jotzen da Eusko Legebiltzarrak legegintza-ekimena baliatzeko eta Gorte Nagusiei legea aldatzeko lege-proposamena egiteko aukera azter dadin. Lege-proposamen horrek autonomia Estatuaren oinarrietara eta Konstituzio Auzitegiaren irizpideetara egokituko luke langabeziagatiko subsidioa jasotzeari buruzko legeria, alegia, gizarte-laguntza ez dagoela Gizarte Segurantzari bakarrik lotuta xedatuko luke.





3. Interpretatzeko irizpide murriztaile horri eusten zaion bitartean, eta gizarte zerbitzuek herritarrei informazioa eta aholkuak emateko duten eginkizuna kontuan hartuta, komenigarria izango litzateke zerbitzu horiek, aipatutako arrazoiengatik EEZP langabeziagatiko subsidioa eteteko espedientea bideratzen ari dela jakiten dutenean, informatzeko eta aholkatzeko lan hori egin dezaten, Eusko Jaurlaritzaren eta foru aldundien laguntza tekniko eta juridikoarekin beharrezkoa izango balitz, eta eragindako pertsonen, beraien burua defendatzeko, administrazio bidean alegazioak eta erreklamazioak prestatzeko aholkuak eta laguntza eman diezazkieten, auzibidera jo aurretik.

